2021eko azaroan erregistratutako langabezia

2021ko azaroan zehar LANBIDEko bulegoetan % 0,55 langabe gutxiago erregistratu dira, langabe kopurua 117.779 da, aurreko hilean baino 650 gutxiago. Urteko azken aurreko hil honetan langabezia hazi egiten zen 2012ra arte, baina 2013 geroztik beti murriztu egiten da, eta normalki urte honetako jaitsiera baino erritmo handiagoan. Lehengo urtean jaitsiera oso esanguratsua izan zen, osasun krisiaren ondorioz izandako erorketaren berreskuratze prozesuaren ondorioz. Aldiz, duela bi urte, normaltasun egoeran, murrizketa apalagoa izan zen.



	aza. 07	aza. 08	aza. 09	aza. 10	aza. 11	aza. 12	aza. 13	aza. 14	aza. 15	aza. 16	aza. 17	aza. 18	aza. 19	aza. 20	aza. 21
Saldoa	691	6.091	1.865	706	2.373	6.930	-1.786	-808	-3.557	-6.416	-3.753	-1.538	143	-12.322	-650

Aurreko urteko azaroarekin alderatuz, 14.657 pertsonetan murriztu da langabezia. 2020ko otsailarekin alderatuz (krisi hasi aurreko hilabetea) 4.002 langabe gehiago zenbatu dira.

- **SEXUA**

Azken hilabetean, gizonezkoen artean hazi egin da langabezia (128) eta emakumezkoen artean murriztu (-778). Merkataritzaren berraktibatzeak, gabonetako kanpainen harira, emakumekoen kontratazioa bultzatzen du. Urte arteko saldoari dagokionez, gizonezkoen artean gehiago

murriztu da (-7.801) emakumezkoen arten baino (-6.856). Krisi hasieran gizonezkoak izan baziren ere kaltetuenak, errekuperazio erritmo altuagoa daramate; 2020 otsailarekin alderatuz, 2.183 gizonezko gehiago daude langabezian, emakumezkoak, ordea, 1.819 gehiago. Gaur egun langabeen % 56,2 emakumeak dira.

- **ADINA**

Azken hilabete honetan langabezia jaitsiera handiena 25-34 adin tartean erregistratu da (-% 1,70). 25 urte azpikoen artean % 0,63 hazi da eta 54 urte gorakoen artean % 0,10 hazi da langabezia. Urte arteko bilakaeran, korrelazio handia ikus daiteke langabeziaren beherakadaren eta langabeen gaztetasunaren artean; 25 eta 34 urte bitartekoen artean % 20,00 murriztu da, 25 urte azpikoen artean % 17,45 murriztu da eta 54 urte gorakoen artean % 0,93 hazi da.

- **JARDUERA EKONOMIKOA**

Azaroan langabeziak industrian (-% 0,86) eta zerbitzu sektorean (-% 0,71) izan du beherakadarik handiena; lehen sektorean % 2,1 hazi da. Iazko egoerarekin alderatuz gero, aipatzekoa da Industrian (-% 12,73) eta Zerbitzuetan (-% 11,23) egon den beherakada nabarmena. Lehenengo lan esperientzia izan ez dutenen artean,% 9,97 murriztu da.

Datuak zehatzago aztertuta, azken hilabetean langabeziaren gorakada handiena izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 81 Higiezinen zerbitzuak eta lorezaintza jarduerak +56
- 97 Etxebizitzak langile enplegatzaile gisa +44
- 56 Janari eta edarien zerbitzuak +175
- 55 Ostatu jarduerak +97

Aitzitik, azaroan erregistratutako langabeziaren murrizketa izan duten jarduerak hauek izan dira:

- 85 Hezkuntza -202
- 47 Txikizkako merkataritza -127
- 25 Produktu metalikoen fabrikazioa -60
- 46 Handizkako merkataritza -56
- 87 Egoitzetako laguntza -56

- **LANGABEZIAREN IRAUPENA**

Hilabete honetan, epe luzeko langabezia 871 pertsonatan murriztu da (-% 1,45) eta epe laburrekoa 221 pertsonatan hazi (+% 0,38). Urte osoari begiratuz gero, epe laburreko langabeen artean murrizketa eman da (-% 7,17) eta epe luzekoen artean, aldiz, % 14,61 murriztu da. Krisia luzatzen ari den heinean, iraupen luzeko langabezia nabarmen handitzen ari da; gaur egun 59.196 langabe iraupen luzekoak dira; langabe guztien % 50,3a.

- **LANGABETUEN KOKAPEN GEOGRAFIKOA**

Azaroako bilakaera honako hau izan da: Araban langabezia % 1,51 murriztu da, urrian baino 302 langabe gutxiago, 19.655 langabe guztira. Gipuzkoan % 0,17 hazi da, 53 pertsona gehiago daude langabezian azaroarekin alderatuta (langabetu kopuru totala 30.970koa da); 2021eko azaroan bilakaera okerrena izan duen lurraldea da. Azkenik, Bizkaian, urrian baino 401 langabe gutxiago daude (% 0,59eko murrizketa), langabetu kopurua 67.154 da.

2021eko azaroan erregistratutako langabezia

Urte arteko saldoari erreparatuz Gipuzkoak erregistratu du eboluzio hoberena % 12,05ko murrizketarekin; Bizkaiak jarraitzen dio % 10,76eko murrizketarekin eta azkenik Araban % 10,54 murriztu da.

Hiriburuak aztertuta, Bilbon azken hilean 240 pertsonatan murriztu da langabezia (-% 1,04), Vitoria-Gasteizen 293 pertsonatan murriztu da (-% 1,90) eta Donostian 41 pertsonatan hazi da (+% 0,54). Murrizketa nabarmenak izan dituzten zenbait eskualde, Ezker Eskualdea (-81), Tolosaldea (-61) eta Oarsoaldea (-50) izan dira. Bestalde Bidasoa Beheran (+88), Deba Garaian (+42) eta Urola Kostan (+42) erregistratu dira hazkunde nabarmenenak.

Erregistratuko langabezia indize altuenak dituzten udalerriak hauek izan dira: Oion (% 19,75), Sestao (% 17,72), Balmaseda (% 16,57), Elantxobe (% 16,08) eta Alonsotegi (% 16,01%).

- **LANGABEZIA-PRESTAZIOA**

2021ko azaroan 39.289 langabek kobratu dute langabezia-prestazioaren bat, hau da, aurreko hilean baino 1.005 langabe gutxiagok. Langabeen % 33,4k du gizarte-prestazio hori jasotzeko eskubidea. 21.326 langabek jasotzen dute ordaindutakoaren araberako prestazioa, hau da, langabeen % 18,1 dira horiek. 17.963 langabek (% 15,3), berriz, langabezia prestazioa jasotzen dute. Gipuzkoa da babes tasa handiena duen lurraldea (% 35,3), Araban % 32,3koa da eta Bizkaian % 32,8koa.

Aurreko hilarekin alderatuz, langabezia estaldura-tasa 0.7 puntu murriztu da; aurreko urtearekin alderatuz 0,9 puntu hazi da.

Azaroan ordaindutakoaren araberako prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua murriztu egin da eta langabezia prestazioa jasotzen duten pertsonen kopurua baita ere.

- **JATORRIA**

Langabeen % 15,9 (18.717 lagun), atzerritarrak dira. Aurreko hilarekin alderatuta, langabezia % 0,40 hazi da atzerritarren artean, aldiz, bertakoen artean % 0,72 murriztu. Urte arteko erlazioan, atzerritarren arten langabezia % 16,69 murriztu da, eta bertakoen artean % 9,92.

Langabe atzerritarren % 34,6 Afrika iparraldekoak dira, % 23,0 Latinoamerikatik datoz, % 18,4 Europako Esparru Ekonomikotik, % 13,9 Saharaz hegoaldeko Afrikatik, eta % 5,8, azkenik, Asiatik. Azaroan Afrika iparraldetik etorritako pertsonen artean murriztu da gehien langabezia (-74); Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritakoen artean, aldiz, hazi da gehien (+81).

- **IKASKETA MAILA**

Langabeen % 60,4k (71.094 lagun), oinarrizko ikasketak ditu, gehienez ere. Azken hilean, oinarrizko prestakuntza dutenen artean 266 langabetu gehiago erregistratu dira. Talde horretan, % 0,35 hazi da langabezia azken hilean. Azken urtean % 10,66 murriztu da langabezia talde honetan.

Batxilergo-titulua duten pertsonak langabeen % 8,9 dira. Talde horretan % 1,10 murriztu da langabezia azken hilean, eta azken urtean % 14,06 murriztu.

Lanbide-heziketa ikasi eta langabezian dauden lagunak 21.787 dira, hau da, langabeen % 18,5. Talde hau azaroan zehar % 1,84 murriztu da, eta azken urtean % 9,42 murriztu da.

Azkenik, langabeen % 12,2k (14.426 lagun), unibertsitateko ikasketak ditu. Ikasketa maila hau duten langabetuen artean % 2,64 murriztu da langabezia azken hilabetean eta % 13,21 murriztu azken urtean.

• KONPARAKETA ESTATUKO DATUEKIN

Estatuan 74.381 langabe gutxiago daude aurreko hilean baino (% 2,28ko murrizketa). Guztira 3.182.687 langabe daude erregistratuta; EAEn, berriz, % 0,55 murriztu da. EAEko mugakide diren autonomia-erkidegoetan langabeziak ondorengo bilakaera izan du: Nafarroan % 1,33 murriztu da, Errioxan % 1,76 murriztu, Kantabrian % 2,73 murriztu da eta Gaztela eta Leonen % 5,06 murriztu. Katalunian % 2,15 murriztu da eta Madrilen % 2,86 murriztu.

EAEn langabezia azken urtean % 11,07 murriztu da eta Espainiar Estatuan % 17,36.

Lan-eskatzaile langabeak 2021eko azaroan

	Aza-2021	Urr-2021	Saldoa	Bil %
SEXUA:				
GIZONEZKOAK	51.580	51.452	128	0,25
EMAKUMEZKOAK	66.199	66.977	-778	-1,16
25 URTEZ AZPIKOAK:				
GUZTIRA	9.835	9.773	62	0,63
GIZONEZKOAK	5.073	4.941	132	2,67
EMAKUMEZKOAK	4.762	4.832	12	-1,45
25-44 URTE:				
GUZTIRA	46.019	46.571	-552	-1,19
GIZONEZKOAK	19.179	19.253	-74	-0,38
EMAKUMEZKOAK	26.840	27.318	-478	-1,75
45 URTEZ GORAKOAK:				
GUZTIRA	61.925	62.085	-160	-0,26
GIZONEZKOAK	27.328	27.258	70	0,26
EMAKUMEZKOAK	34.597	34.827	-230	-0,66
SEKTOREA:				
NEKAZARITZA ETA ARRANTZA	2.669	2.614	55	2,10
INDUSTRIA	13.352	13.468	-116	-0,86
ERAIKUNTZA	7.694	7.729	-35	-0,45
ZERBITZUAK	79.043	79.610	-567	-0,71
AURREKO ENPLEGURIK GABE	15.021	15.008	13	0,09
LURRALDE HISTORIKOA:				
ARABA	19.655	19.957	-302	-1,51
BIZKAIA	67.154	67.555	-401	-0,59
GIPUZKOA	30.970	30.917	53	0,17
EAE	117.779	118.429	-650	-0,55

ESKUALDEKO BILAKAERA

	Langabetuak	Erregistratutako langabezia indizea	Aurreko hilabetea		Aurreko urtea	
			Saldoa	Bil %	Saldoa	Bil %
Bidasoa Behera	4.053	10,9%	88	2,22	-563	-12,20
Oarsoaldea	3.548	9,8%	-50	-1,39	-437	-10,97
Donostia-S.Seb.	7.588	8,6%	41	0,54	-1.308	-14,70
Donost.Mendebaldea	3.082	8,4%	-32	-1,03	-292	-8,65
Tolosaldea	1.873	8,0%	-61	-3,15	-384	-17,01
Urola Erdia	1.187	7,7%	3	0,25	-229	-16,17
Goiherri	1.582	7,4%	-22	-1,37	-206	-11,52
Deba Garaia	2.509	8,3%	42	1,70	-221	-8,10
Deba Behera	2.785	10,5%	0	0,00	-224	-7,44
Urola Garaia	1.104	9,2%	2	0,18	-159	-12,59
Urola Kosta	1.659	7,4%	42	2,60	-221	-11,76
GIPUZKOA	30.970	8,8%	53	0,17	-4.244	-12,05
Vitoria-Gasteiz	15.168	11,9%	-293	-1,90	-1.863	-10,94
Aialako Ibarra	2.287	12,0%	17	0,75	-237	-9,39
Arabar Errioxa	720	13,1%	10	1,41	-44	-5,76
Arabako lautada	727	9,6%	-17	-2,28	-118	-13,96
Gorbeia inguruak	307	6,5%	-7	-2,23	-15	-4,66
Arabako Ibarrak	407	7,9%	-20	-4,68	-57	-12,28
Arabako Mendialdea	102	6,5%	1	0,99	-32	-23,88
ARABA	19.655	11,6%	-302	-1,51	-2.315	-10,54
Gobela	4.815	9,4%	20	0,42	-619	-11,39
Txorierri	2.296	10,1%	14	0,61	-229	-9,07
Uribealdea	3.154	9,5%	-48	-1,50	-301	-8,71
Durangaldea	3.473	9,3%	-25	-0,71	-393	-10,17
Busturialdea	2.204	10,3%	18	0,82	-261	-10,59
Lea-Artibai	1.037	8,6%	38	3,80	-63	-5,73
Enkarterriak	2.043	13,3%	-33	-1,59	-222	-9,80
Arratia-Zornotza	1.549	8,8%	16	1,04	-123	-7,36
Arratia-Nerbioi	1.311	10,1%	-44	-3,25	-189	-12,60
Bilbo	22.808	13,7%	-240	-1,04	-3.138	-12,09
Ezkerraldea	17.642	14,2%	-81	-0,46	-2.078	-10,54
Ibaizabal	4.739	11,8%	-30	-0,63	-448	-8,64
BIZKAIA	67.154	12,1%	-401	-0,59	-8.098	-10,76
EAE	117.779	10,9%	-650	-0,55	-14.657	-11,07

* Bizkaia eta Arabako eskualdeen batura ez dator bat lurraldeko totalarekin, Orduña udalerria Bizkaikoa izanik Arabako Aialako Ibarra eskualdean kokatzen baita.

** Tolosaldeko, Arabar lautadako eta Durangaldeko datuak ez dira fidagarriak administrazio-kudeaketa arrazoiengatik. Arrazoi horiek Abaltzisketako, Alegria-Dulantziko eta Abadiñoko erregistratutako langabetu kopurua haztea ekarri du, helbide osatu gabe zegoen kasuetan.